

TESTU BATERATUA

OHARRA: Dokumentuak informazio izaera du eta EZ du balio juridikorik

ZIOEN AZALPENA

Gaur egun oinezkoari ematen zaion garrantziak, bizikleta garraibide moduan berriro erabiltzen hasi izanak, herri garraioko ibilgailuei ematen zaien lehentasunak eta ibilgailu motordunen zirkulazioaren eragin txarra murrizteko herritarrek egindako eskaera gero eta ugariagoek beharrezko egiten dute joko arauak eguneratzea, gure hiriko mugikortasunak gaur egun bizi duen egoerara egokitzearen.

Azken hamabost urteotan Donostian mugikortasunaren arloan sustatu diren berrikuntzak eta, bestalde, arauetan izan diren aldaketak arrazoi nahikoa dira Udalak zirkulazioaren inguruan eman dituen xedapen guztiak dokumentu bakar batean biltzeko.

Testu hau egitean, gure asmoa ez da izan arlo honetako legeak zehatz-mehatz transkribatzea. Funtsezko alderdiak bildu ditugu, ordea, gure ustez nabarmendu behar diren beste batzuekin batera, baina, batez ere, lege orokorrak gure hiriaren errealitatera egokitzen dituzten arauak erreparatu diegu. Parte Zaharreko eta oinezkoen beste alde batzuetako zirkulazioari buruzkoak, patin eta monopatinen erabileraren gainekoak, bizikleten zirkulazioaren ingurukoak eta pasabideak eta aparkatzeko debekua duten gune erreserbatuak eskuratzeko baldintzak nahiz galtzadan jarduteko baimenak arautzen dituztenak dira horietako batzuk.

Ordenantzak sei titulu ditu. I.ak, orokorrak, Ordenantzaren xedea eta ezarpen-eremua biltzen ditu, bai eta bide seinaleei buruzko kapitulu bat ere.

II.ak oinezkoen dihardu. Oinezkoek hiri barruko zirkulazioan duten lehentasuna nabarmentzen du eta oinezkoen aldeetan –batez ere, Parte Zaharrean– zirkulazioari ezarritako murrizketen inguruko arauak jasotzen ditu.

III. tituluak ibilgailu motordunen zirkulazioari buruzko alderdi batzuk biltzen ditu. Azpimarratu behar da motor-bizikletei eta motorrei bide ematen zaiela herri garraioarentzat erreserbatutako erreietatik ibiltzeko, baldin eta seinaleek berariaz hala adierazten badute. Alde batzuetan 30 km/h-ko lastertasuna gainditzeko debekua ezartzeko aukera jasotzen da, motordunen zirkulazioa eta oinezko ugari ibiltzen den aldeak nahiz batez ere bizitokiz osatutako aldeak bateragarri egiteko.

Titulu berezi bat gorde da bizikletetarako, IV. titulua, kontuan izanda garraibide moduan erabiltzeko joera berriz ere zabaltzen ari dela eta, bestetik, horrek arazoak zor ditzakeela. Bizikletak galtzadan eta oinezkoek lehentasuna duten aldeetan ibiltzeko arauak ematen dira. Bizikleten erregistroa sortuko dela ezartzen da –bertan izena ematea borondatezkoa izango da–, mota horretako ibilgailuen lapurreta prebenitzeko.

V. tituluak bide publikoan jarduteko galtzadaren erabilerari lotutako alderdi batzuk biltzen ditu. Horien artean, salgaiak banatzen dituzten ibilgailuek bete beharreko arauak, hainbat motatako pasabideak, aparkatzeko debekua duten gune erreserbatuak, mugitzeko

zailtasunak dituztenek aparkatzeko erreserbatutako guneak eta galtzada aldi batez okupatzeko baimenak.

Zehapen araubidea Ordenantzako azken tituluan, VI.ean, arautzen da. Titulu horrek egiten duen sailkapenaren arabera arau-haustek arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke. Zehapenak, berriz, 90 euro artekoak izango dira arau-hauste arinetarako eta 600 euro artekoak oso larrietarako.

Martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegintzakoak, trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko legearen testu atalkatua onartzekoak, honako eskumenak ematen dizkie udalei, 7. artikuluan: Beren titularitatepeko herri barruko bideetako trafikoa antolatu eta kontrolatzea, beren agenteen bidez trafikoa zaintzea eta bide horietan egindako arau-haustek salatu eta zigortzea, eskumen horiek beste administrazio bati berariaz eman ez bazaizkio behintzat.

Udalek, halaber, artikulua horrekin bat, herri barruko bideen erabilpena ere arautu behar dute zirkulazio ordenantza baten bidez, beti ere arlo horretan indarrean dauden lege-arauek errespetatuta, eta hiru alderdi hauek batera zaintzen dituztela: Berdin banatzea aparkalekuak erabiltzaile guztien artean, ibilgailuen zirkulazioa erraza izatea eta oinezkoak kaleetan ibili ahal izatea.

Indarrean dauden legeek emandako ahalmenak erabiliz, honako ordenantza hau ematen da:

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA. XEDEA, EZARPEN-EREMUA ETA KONTZEPTUAK

1. artikulua. Xedea.

Ordenantza hau trafiko, ibilgailu motordunen zirkulazio eta bide segurtasunaren alorrean indarrean dauden legeek Udalarri ematen dizkieten eskumenak erabiliz ematen da. Bi helburu ditu: Donostiako herri bideetako oinezko eta ibilgailuen zirkulazioaren antolaketari lotutako alderdi batzuk arautzea, batetik, eta trafiko, ibilgailu motordunen zirkulazio eta bide segurtasunaren alorreko lege-arauek ezarritakoa udalerrri honi egokitzea, bestetik. Ordenantza honetan berariaz arautzen ez diren alderdi guztiei dagokienez, lege-arau horietan ezarritakoa bete beharko da.

Helburu horiekin, Ordenantzak honakoak arautzen ditu:

- a) Ibilgailu eta oinezkoek herri barruko bideetan ibiltzeko bete beharreko arauak.
- b) Denek erabiltzeko bideak seinaleztatzeko irizpideak.
- c) Ibilgailuen –eta, batez ere, ibilgailu motordunen– zirkulazioari lotutako jarduerak direla-eta, Udalak aurrez eman beharreko lizentzia eta baimenak, bide-zirkulazioa segurua eta arina izango dela ziurtatzeko, bai eta helburu horrekin har daitezkeen zuhurtzia-neurriak ere.
- d) Arau-haustek eta zehapenak.

2. artikulua. Ezarpen-eremua.

Ordenantza honek biltzen dituen arauak udalerrri osoan aplikatuko dira eta honako hauek behartzen dituzte: Zirkulatzeko egoki diren herri barruko bide eta lursail publikoen titular eta erabiltzaileak; egokitasun hori izan ez arren, edozeinek erabiltzen dituen bide eta

lursailenak eta, beste araurik izan ezean, erabiltzaile talde zehaztu gabe batek erabiltzen dituen bide eta lursail pribatuen titularrak.

3. artikulua. Erabilitako kontzeptuak.

Ordenantza honen ondorioetarako, ibilgailu, bide publiko eta haien erabiltzaileen inguruko kontzeptuak interpretatzeko, testu honen Eranskinean ematen zaien esanahiari erreparatu behar zaio.

4. artikulua. Organo eskudunak.

Udalbatzarrari dagokio oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazio orokorra arautzea Donostiako udalerrian, hirigintza planei eta zirkulazioa edota aparkamendua arautzeko planei lotuta, bai eta arlo horretako xedapen orokorrak onartzea ere.

Gobernu Batzarrari –nahiz une bakoitzean indarrean dauden eskuordetzen arabera eskua duenari– eta, kasu batzuetan, alkateari, berriz, Udalbatzarraren erabakiak betez zirkulazioa eta aparkamendua normaltasunez eta modu egokian gauza daitezen beharrezkoak diren antolamendu neurri guztiak onartzea dagokie, bai eta Udalbatzarrak onartutako arau orokorrik izan ezean unean-uneko neurriak hartu behar direnean, neurri horiek ontzat ematea ere.

Larrialdietan, Gobernu Batzarrak antolamendu neurri orokorrak hartu ahal izango ditu, baina Udalbatzarrak berretsi beharko ditu.

Gobernu Batzarrari dagokio, baita ere, ordenantza honetan araututako lizentzia eta baimenak eman nahiz ukatzea.

II. KAPITULUA. BIDE SEINALEAK

5. artikulua.

Udal organo eskudunak aginduko du seinaleak jarri, kendu eta aldatzeko, kasu bakoitzari dagokionaren arabera.

Norbanakoek ezin izango dute inondik inora bide seinalerik jarri.

Ordenantza honetan araututako bideak erabiltzen dituztenek zirkulazio arauak bete behar dituzte eta bide horietan dauden arauko seinaleetan adierazitako mezura egokitu behar dute beren jokabidea.

6. artikulua.

Hiriko sarreretan banaka zein karteletan bilduak jarritako derrigorrezko seinaleak udalerriri osoan bete behar dira, kale zati batean seinale bereziak daudenean izan ezik.

Oinezkoek lehentasuna duten aldeetan eta zirkulazio murriztua nahiz aparkamendu mugatua dutenetan, sarbideetako seinaleak, oro har, inguru horren barruko bide guztietan bete behar dira, salbuespena berariaz seinaleztatuta dagoenean izan ezik.

7. artikulua.

Norbanakoek informazio seinalerik jarri nahi izanez gero, Udalaren baimena beharko dute beti, eta interes publikorako egokia denean baino ez zaie emango.

Bide seinaleen gainean eskumena duen udal organoak indarrean dauden arauak betetzen ez dituzten seinale guztiak kenduko ditu, bai eta udal baimenik ez dutenak nahiz baimenean ezarritako baldintzak betetzen ez dituztenak ere, ezarri beharreko zehapenak gorabehera.

Galarazita dago seinaleen edukia aldatzea eta haien gainean edo haien ondoan ezer jartzea, baldin eta zer horrek nahasketa eragin badezake, seinaleak ondo ikustea oztopa

badezake, haien eraginkortasuna murrizt badezake, bidearen erabiltzaileak itsutu badezake edo haien arreta desbideratu badezake. Hala, ezin da jarri ez plakarik, ez kartelik, ez markesinarik, ez iragarkirik, ez markarik, e.a.

8. artikulua.

Hau da seinaleen arteko lehentasun hurrenkera:

1. Trafikoa zaintzen duten agenteen seinale eta aginduak.
2. Behin-behingo seinaleak, bide publikoaren ohiko erabilera-araubidea aldatzen dutenak.
3. Semaforoak.
4. Zirkulazio seinale bertikalak.
5. Bide-marrak.

Seinaleek ematen dituzten aginduak beren artean kontraesanean badaude, aurreko paragrafoan ezarritako hurrenkerearen arabera lehentasuna duenari egin beharko zaio kasu eta, mota berekoak izanez gero, murriztaileenari.

9. artikulua.

Oinezkoen pasagune semaforodunak honela seinaleztatuko dira horizontalean: Bi marra zuri eten, ez labaingarri, bakoitza 50 cm zabal, galtzadarekiko perpendikular jarrita; haien arteko distantzia kalearen ezaugarrien eta erabilera-intentsitatearen baitan izango da; 40 cm-ko zabalerako geralerro etengabe bat jarriko da, baita ere, lehen lerro etenetik hiru metrora. Organo eskudunak hala erabakiz gero, zerrenda zuri horizontal etengabe ez labaingarriekin seinaleztatutako oinezkoen pasagune semaforodunak ere ezarri ahal izango dira.

Semafororik ez duten pasaguneak honela seinaleztatuko dira: Marra zuri horizontal batzuk, bakoitza 50 cm-koa, galtzadarekiko paralelo jarrita, hura zeharkatzen duen sail bat osatuz. Ez labaintzeko pintura erabiliko da.

Seinale horiez gain, «P-20» eta «S-13» seinale bertikalak ere jarriko dira, baldin eta bidearen zabalerak, ezaugarriek eta erabileraren intentsitateak horretarako bidea ematen badute.

10. artikulua.

Trafikoaren segurtasuna eta oinezkoen joan-etorriak bermatzeko beharrezkoa izanez gero, oinezkoen pasaguneak galtzada baino gorago eraiki ahal izango dira, beti ere irisgarritasun baldintzak betetzen badituzte.

Horretaz gain, oinezkoen segurtasuna zaintzen laguntzen duten gailuak ezarri ahal izango dira haien zirkulazioak eta haiek lehentasuna duten aldeetan seinaleztaturiko bizikleta-ibilbideek bat egiten duten tokietan.

Halaber, eta lehen esandako arrazoiengatik, behar bezala seinaleztatutako zerrendak jarri ahal izango dira galtzadan, ibilgailuek lastertasuna murriztu behar izan dezaten.

11. artikulua.

Bizikletazaleen segurtasuna eta erosotasuna areagotzeko gailuak jarri ahal izango dira, bai trafiko mistoko kaleetan bai bizikleta-bidea dutenetan, hala nola:

- Trafiko motordunaren kontrako norabidean doazen bizikleta-bideetan.
- Semaforodun bidegurutzetako itxaron-alde aurreratuetan.

II. TITULUA

OINEZKOAK

I. KAPITULUA. OINEZKOEN ZIRKULAZIOA

12. artikulua.

Oinezkoek espaloi eta ibiltokietan eta berentzat seinaleztaturiko aldeetan ibili behar dute. Seinaleztaturako pasaguneetatik zeharkatuko dituzte galtzada eta bizikleta-bideak. Galtzada zeharkatzeko oinezkoen pasagunerik ez badago, ziurtatu beharko dute arriskurik eta oztoporik sortu gabe zeharkatu dezaketela.

II. KAPITULUA. OINEZKOEK LEHENTASUNA DUTEN ALDEAK

13. artikulua.

Udal organo eskudunak oinezkoek lehentasuna duten aldeak ezarri ahal izango ditu. Haietan galarazita egongo da, guztiz edo aldeez, ibilgailuak zirkulatu eta aparkatzea, eta organo eskudunak erabakiko du nola zirkulatu behar den bertan.

14. artikulua.

Oinezkoek lehentasuna duten aldeak sarreran eta irteeran egongo dira seinaleztatuta. Horrezaz gain, osagai mugikorrek ere jarri ahal izango dira, ibilgailuei sartzan ez uzteko edo sartzan direnak kontrolatzeko.

15. artikulua.

Oinezkoek lehentasuna duten aldeetan zirkulatzeko eta aparkatzeko debekua iraunkorra izan daiteke edo ordu nahiz egun batzuetara mugatua; era berean, zedarritutako aldeko bide guztiei zein bakar batzuei eragin diezaieke. Muga ibilgailuari berari ere jarri dakioke, tamaina zein motaren arabera.

16. artikulua.

Ibilgailu batzuek ez dituzte bete beharko oinezkoek lehentasuna duten aldeetan zirkulazioari ezartzen zaizkion mugak. Hona hemen:

a) Su Itzalketa Zerbitzuaren ibilgailuak, segurtasun indar eta kidegoenak eta anbulantziak, baldin eta jardunean badaude. Bestelako zerbitzu publikoak ematen dituzten ibilgailuek, berriz, Udalaren baimena beharko dute horrelako aldeetan sartzeko.

b) Oinezkoek lehentasuna duten aldean bizi diren edo bertan laguntza jaso behar duten gaixoak eramaten dituzten ibilgailuak.

c) Oinezkoek lehentasuna duten aldeko ostaturen batean lo egiten duten pertsonak eramaten dituztenak. Kasu honetan, bidaiaria eta ekipajea sartu eta ateratzeko behar den denboraz baizik ezin izango da ibilgailua gelditu aldean, eta inoiz ez hamar minutu baino gehiago. Parte Zaharrean, hala ere, ezin izango da hau egin.

d) Baimendutako garaje eta aparkalekuetara sartu edo haietatik ateratzen direnak.

e) Mugitzeko arazoak dituzten pertsonak gidatutakoak edo horrelako pertsonak garraiatzen dituztenak, oinezkoek lehentasuna duten aldera sartu edo handik ateratzen direnean. Kasu horretan, aldera sartzeko arrazoia gauzatzeko behar den denboraz baino ezin izango da gelditu ibilgailua bertan.

f) Berariaz emandako udal baimena dutenak.

17. artikulua.

Aurreko artikuluan aipatutako ibilgailuek, oinezkoek lehentasuna duten aldeetan ibiltzen direnean, oinezkoenaren arabera egokituko dute lastertasuna eta ezin izango dira, inola ere, 20 km/h baino azkarrago ibili.

18. artikulua.

Patin eta bizikletak ere ibili ahal izango dira oinezkoek lehentasuna duten aldeetan, 27 eta 50. artikuluetan adierazitako baldintzak betez gero, hurrenez hurren. Bizikleta eta patinek lehentasuna izango dute gainontzeko ibilgailuen aurretik, baina ez oinezkoen aurretik.

III. KAPITULUA. PARTE ZAHARREAN ZIRKULATZEKO ARAU BEREZIAK

19. artikulua.

Urgull mendiak, abuztuaren 31ko kaleak, Aldamar kaleak, Bulebarrak, Ijentea kaleak eta portu aldeak mugatzen duten inguruan ibilgailuek bete behar dituzten zirkulazio eta aparkamendu arauak kapitulu honetan ezartzen dira.

Irakurketa automatikoko txartela duten ibilgailuak Mari, Kanpandegi, Lasala, Soraluze, Done Joan eta Done Bikendi kaleetara sartu ahal izango dira, ordu mugarik gabe. Kale horietan bertakoek aparkatu ahal izango dute, baldin eta baimena badute.

20. artikulua.

Aurreko artikuluan adierazitako aldean, salgaiak kargatu eta deskargatzeko erabiltzen diren ibilgailuak ibili ahal izango dira, baldin eta salgai horiek, pisu, bolumen, tamaina nahiz antzeko gorabeherengatik pertsona batek ezin eraman baditzake. Hala ere, astegunetan eta 07:00etatik 11:30 arte baino ezin izango dira ibili. Jaiegunetan zirkulazioa galarazita egongo da.

Halaber, aparkatzea ere galarazita egongo da, oro har, alde osoan, horretarako berariaz seinaleztatutako guneetan izan ezik. Nolanahi izanda ere, gune horietara doazen kaleetako sarbideetan ezin izango da inola ere aparkatu.

Ibilgailuek oinezkoenaren arabera egokitu beharko dute lastertasuna, inoiz ahaztu gabe oinezkoak beti duela lehentasuna.

Motor-bizikletek eta motorrek gainontzeko ibilgailu motordunek dituzten mugapen berak izango dituzte Parte Zaharrera sartzeko.

21. artikulua.

Mugikortasun arloko zerbitzu teknikoek horren aldeko txostena eginez gero, ibilgailuei 20. artikuluan zehaztutako aldean sartzeko galarazteko sistemak ezarri ahal izango dira.

Horrelako sistema bat eta haren funtzionamendu arauak ezartzeko erabaki nahiz ebazpenik hartuz gero, argitara eman beharko da, herritar guztiak jakinaren gainean jartzeko.

Erabaki nahiz ebazpen horrek ibilgailu batzuei alde horretara sartzen uzteko baimenak emateko aukera arautuko du, bai eta haiek lortzeko bete beharreko baldintzak ere.

22. artikulua.

Hiru mila eta bostehun (3.500) kilogramo baino gehiagoko BGP duten ibilgailuak edota bi metro eta berrogei zentimetro (2,40) zabal eta sei metro eta berrogeita hamar zentimetro (6,50) luze baino handiagoak direnak ezin izango dira Parte Zaharrera sartu, ezta bertan ibili ere.

Hala eta guztiz ere, hamabi mila (12.000) kg arteko BGP duten ibilgailuek, Parte Zaharrera sartu behar izanez gero, eskaera egin eta udaltzainek lagunduta joan beharko dute.

Gainera, 10:00ak baino lehen atera behar dute Parte Zaharretik. Mugatutako aldeetan egiten ari diren obrak eraikuntza materialez hornitzen dituzten ibilgailuek gainditu ahal izango dute ordu-muga hori, beti ere obrak beharrezko baimenak baditu.

23. artikulua.

Bidaiariak igo eta jaisteko nahiz salgaiak kargatu eta deskargatzeko gelditzen direnean, ibilgailuek etxeetara sartzeko behar den tokia libre utzi behar dute, metro bana libre utzita atariaren alde bakoitzean; bira egiteko guneetatik bost metro baino urrutiago jarriko dira eta aparkatuta dauden beste ibilgailuetatik, hiru metrora.

24. artikulua.

Ibilgailu hauek, oro har, ez dituzte kapitulu honetan ezarritako murrizpenak bete behar: Su itzalketa zerbitzuarenak, segurtasun indar eta kidegoenak eta anbulantziek, baldin eta jardunean badaude.

Taxi zerbitzua ematen duten ibilgailuak 20. artikuluan mugatutako aldera sartu ahal izango dira, baldin eta:

a) Parte Zaharrean bizi diren lagunak nahiz mugitzeko arazoak dituztenak eramaten badituzte.

b) Parte Zaharrean bizi diren lagunak nahiz mugitzeko arazoak dituztenak hartzeko sartu behar badute.

Taxi zerbitzua ematen duten ibilgailuak ezin izango dira Parte Zaharrera sartu ostiral, larunbat eta jaiegun bezperetan, 19:00etatik 01:00a arte. Mugitzeko arazoak dituzten pertsonak eramaten dituzten taxiek ez dute murrizpen hori bete beharrik izango.

25. artikulua.

Organo eskudunak hartutako erabaki nahiz ebazpen baten bitartez, eta Mugikortasun Arloko zerbitzu teknikoek txostena egin eta gero, mugikortasun arazoak dituzten lagunak eramaten dituzten ibilgailuei eta aldearen barruko establezimendu eta lantegien jabetzakoak direnei baimendutako orduetatik kanpo ere utzi ahal izango zaie Parte Zaharrera sartzen, baldin eta behar bezala frogatzen badute ibilgailua erabili behar dutela.

Baimenean zehaztu beharko da zer bidetatik sartuko diren eta zer baldintza bete behar dituzten sartzean. Baimendutako ibilgailu horiek ezin izango dira, inola ere, alde barruan aparkatu.

IV. KAPITULUA. PATIN ETA MONOPATINEN ZIRKULAZIOA

26. artikulua.

Motorrik gabeko patinak eta antzekoak espaloietan, oinezkoek lehentasuna duten aldeetan eta bizikleta-bideetan baino ezin izango dira ibili. Ezin izango dira, hortaz, zirkulazio erreietan sartu. Oinezkoen lastertasunera egokitu beharko dute berena, eta kontu handiz ibili behar dute trabarik edo arriskurik ez sortzeko. Monopatinak ezin izango dira ibili ez espaloietan ez oinezkoen aldeetan.

Horrelako gailuek ez dute lehentasunik izango oinezkoen aurretik.

27. artikulua.

Monopatinak, motorrik gabeko patinak eta antzekoak horretarako berariaz seinaleztaturiko aldeetan baino ezin izango dira kirola egiteko tresna moduan erabili.

III. TITULUA

IBILGAILU MOTORDUNAK

I. KAPITULUA. ZIRKULAZIO ARAU OROKORRAK

1. ATALA. Erreien erabilera

28. artikulua.

Erreserbatutako erreiak, hasieran dituzten seinaleetan adierazitako ibilgailuek baino ezin izango dituzte erabili.

Ibilgailu motordunak ezin izango dira espaloietan, oinezkoen aldeetan, bizikleta-bideetan nahiz erreserbatutako errei horietan ibili.

Organo eskudunak erreserbatutako erreiak babesteko gailuak jartzeko erabakia hartu aurretik, txosten tekniko bat egin beharko da proposatutako modeloaren gainean, bidearen ezaugarriekin eta erabilerarekin bat datorrela eta segurtasuna bermatzen duela egiaztatzeko.

29. artikulua.

Erabilera jakinetarako erreserbatutako erreiak, galtzadan nahiz haren ondoan jarritako seinaleetan adierazitako ibilgailuek erabili ahal izango dituzte.

Polizi, suhiltzaile, herri babes eta osasun laguntza zerbitzuen ibilgailuek larrialdietan baino ezin izango dituzte errei horiek erabili eta, gainera, hots edo argi seinaleak piztuta eraman beharko dituzte.

Gainontzeko ibilgailuek ezin izango dituzte errei horiek erabili, larrialdietan eta Udaltzaingoak nahiz gainontzeko polizi kidegoek agintzen dutenari jarraiki izan ezik.

Errei horiek, aldi berean garraio publikorako bideak eta larrialdi zerbitzuetarako lehentasuneko bideak izanik, Udaltzaingoa arduratuko da libre mantentzen, baimenik ez duten ibilgailuei handik ibiltzea nahiz han gelditzea galaraziz, are bi minutu baino gutxiagorako bada ere, salbu eta 43.9, 43.10, 43.11 eta 43.12 artikuluetan adierazitako kasuetan.

* 2013ko martxoaren 26ko Udaltzako akordioaren ondorioz, 29. artikulua 4. paragrafoa aldatu da.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2013/06/05/e1305568.htm>

Mugitzeko arazoak dituzten lagunak garraiatzen dituzten ibilgailuek erreserbatutako errei zati bakoitzaren hasierako nahiz bukaerako izkinak erabili ahal izango dituzte lagun horiek igo edo jaits daitezen, baldin eta toki horiek behar bezala seinaleztatuta badaude.

2. ATALA. Lastertasuna

30. artikulua.

Donostiako udalerriko herri barruko bideetan, ibilgailuak ezin izango dira 50 km/h baino azkarrago ibili, edozein kategoriatakoak direla ere. Hala eta guztiz ere, kasu batzuetan are motelago ere ibili beharko dute, bidearen konfigurazioaren eta inguruabarren arabera, eta hala seinaleztatuko da berariaz.

Pertsonen segurtasuna areagotzeko eta ingurumenaren kalitatea handitzeko, hirurogeita hamar (30) km/h-ko lastertasuna ezarri ahal izango da hiriko alde batzuetan. Lastertasun mugatua duen aldea sarreran eta irteeran seinaleztatuko da, S-30 eta S31 seinaleekin, hurrenez hurren.

31. artikulua.

Espaloirik gabeko kaleetan, oinezkoek lehentasuna duten aldeetan eta oinezko ugari ibiltzen den tokietan, ibilgailu guztiek, gehienez, hogeita (20) km/h-ko lastertasuna hartuko dute, eta kontuz ibiliko. Gidariak lehentasuna eman behar diete oinezkoei. Ibilgailuak seinale nahiz marken bidez adierazitako tokietan baino ezin izango dira aparkatu.

3. ATALA. Hots kutsadura eta airearena

32. artikulua.

Hiri barruko bideetan ibiltzen diren ibilgailuen motorrek ezin izango dituzte hots kutsaduraren eta airearen kutsaduraren alorrean indarrean dauden lege-arauetan ezarritako igorpen-mugak gainditu.

Zehatz esanda, bat-bateko azelerazioek, ihes-hodi trukatuak nahiz bestelako gorabehera ez ohikoek eragindako zaratarik ezin izango dute egin.

Hots kutsadurari dagokionez, Zarata eta bibrazioek sortutako kutsadurari aurre egiteko Udalaren jarduna arautzeko Ordenantzan edo hura ordeztzen duen arauan ezarritakoa bete beharko da.

33. artikulua.

Ibilgailu gidari guztiek zarata eta gasen igorpen maila antzemateko arauzko frogak egin behar dituzte, behar den laguntza emanaz.

II. KAPITULUA. ZIRKULAZIO NEURRI BEREZIAK

34. artikulua.

Trafiko eta zirkulazioa, larrialdiak, segurtasuna, ordena publikoa eta kirol, kultur nahiz bestelako ekintzak direla-eta, organo eskudunak trafikoaren antolamendua aldatu ahal izango du behin-behingo eta, hala badagokio, beharrezko neurriak hartu pertsona eta ibilgailuen segurtasuna bermatzeko, garraio publikoari lehentasuna emateko eta zirkulazioa errazteko.

Horretarako, komeni diren seinaleak behin-behingo jarri edo kentzeko agindu ahal izango du, bai eta murrizpenak ezarri ere ibilgailu nahiz bide jakin batzuei. Erasandako erabiltzaileek nahitaez bete beharko dituzte.

35. artikulua.

Neurri bereziak erasandako aldea, ahal dela, hogeita lau ordu lehenago seinaleztatuko da. Seinaleekin batera, adierazpen bat jarriko da neurriak zergatik hartzen diren, zenbat denborarako eta zer erabaki dela medio azaltzeko.

Neurria dela-eta aparkatzeko tokirik kentzen bada, behin-behineko seinaleetan aditzera emango da, hogeita lau ordu lehenago, aparkatzea debekatuta dagoela eta seinaleztaturiko aldean aparkatutako ibilgailuak garabiak eramango dituela.

Neurria hartu aurretik aldean aparkatuta zeuden ibilgailuak, beren jabeek kendu ezean, garabiak kendu edo tokiz aldatuko ditu, jabeei ohartarazi eta gero. Egindako edo egiten saiatutako ohartarazpenek jasota gelditu behar dute. Garabi zerbitzu horrengatik ez da inolako tasa nahiz preziorik ordainaraziko.

36. artikulua.

Behar larririk egonez gero, ez da ezinbestekoa izango erasandako aldea seinaleztatzea. Neurri bereziei behar den denboran baino ezin izango zaie eutsi eta, gehiago iraun behar izanez gero, organo eskudunak emandako ebazpen batek berretsi beharko ditu.

III. KAPITULUA. GARRAIO BEREZIAK

37. artikulua.

Garraio bereziko ibilgailuek udal baimena beharko dute udalerritik pasatzeko.

Udalerrira sartu baino bost lanegun lehenago, gutxienez, eskatu beharko dute baimena. Baimen hori eskatzeak ez du esan nahi indarrean dauden arauetan ezarritako gainontzeko baimenak eskatu behar ez direnik.

Baimenean jaso beharko da zer ordutan sartu eta ibil daitekeen ibilgailua udalerritik eta zer ibilbide hartu behar duen. Eskatzaileak ibilbidea egiaztatu beharko du, bideragarria den jakiteko; izan ere, hori haren erantzukizuna izango da.

Garraio bereziko ibilgailuak udaltzainek lagunduta ibiliko dira udalerritik; horretarako Udalak ezarritako diru ordaina ordaindu beharko dute.

Garraioa egin behar den eguna iritsi eta Udalak ez badu baimena eman edo ukatzeko ebazpena jakinarazi, eskaera baztertutakotzat jo beharko da.

IV. KAPITULUA. GELDITZEA ETA APARKATZEA

1. ATALA. Gelditzea

38. artikulua.

Gelditzea honako hau da: Ibilgailua bi minutu baino gutxiago ibilgetzea, pertsonak hartu nahiz uzteko edo gauzak kargatu nahiz deskargatzeko.

Gelditzen denean, gidaria ezin izango da ibilgailutik atera eta, salbuespen gisa, ateratzen bada, ibilgailua ikusterrean izan beharko du eta inork edo egoerak berak hala eskatzen duenean dagoen tokitik kendu.

Espaloirik ez duten kaleetan gelditzean, metro bat utzi beharko da ibilgailuaren eta hurren den fatxadaren artean.

39. artikulua.

Galarazita dago toki hauetan gelditzea:

—Hala seinaleztatuta dagoen nahiz arauak hala ezartzen duten tokietan, kasu hauetan izan ezik: Gaixorik edo ezindurik dauden bidaiariak hartu edo uzteko bada eta ibilgailua larrialdi edo segurtasun zerbitzuko nahiz baimendutakoa bada.

—Alkateak arreta berezia eskatzen duten edo trafikoko intentsitate handia duten bidetzat hartutakoetan, gelditzeko seinaleztatuta dauden tokietan izan ezik, halakorik egonez gero.

—Pertsonen nahiz ibilgailuen zirkulazioa oztopatzen den lekuetan.

—Babesgune, irlatxo, erdibitzaile, babes-alde eta trafikoa bideratzeko gainontzeko osagaietan.

—Pasabide lizentzia dutela behar bezala seinaleztatzen duten eraikinetara ibilgailuei pasatzen ez uzteko moduko tokietan.

—Pertsonen eraikin batera normal sartu nahiz ateratzen ez uzteko moduko tokietan.

—Espaloi, pasealeku, oinezkoen alde eta lorategietan.

- Sestran dauden pasaguneetan, bizikletazaleen pasaguneetan eta oinezkoen pasaguneetan.
- Erabiltzaile jakin batzuk bakarrik zirkulatzeko edo haiei zerbitzu emateko erreserbatutako erreie edo bide-zatietan.
- Hiri barruko herri garraioak baino ezin erabili dituen aparkatzeko aldeetan.
- Ezintasun fisikoren bat dutenen ibilgailuetarako seinaleztatutako aldeetan.
- Hiri barruko herri garraioak edo bizikletek baino erabili ezin dituzten erreietan.
- Herri zerbitzuko, erakunde ofizialen nahiz larrialdi zerbitzuetako ibilgailuek baino ez erabiltzeko erreserbatutako aldeetan.
- Ezintasun fisikoren bat dutenak pasatzeko ertza janda duten espaloi-zatien aurrean.
- Tranbien erreien gainean edo haiengandik oso hurbil, tranbiaren zirkulazioa oztopatzen bada.
- Zubietan eta gaineko pasabideetan nahiz haien azpian.
- Izkina, bidegurutze nahiz bidebanatze batetik bost metrora baino gutxiagora.
- Seinaleak bete behar dituzten erabiltzaileei seinale horiek ikustea galarazten zaien tokietan nahiz besteri maniobrak eginarazten zaienetan.
- Martxaren kontrako noranzkoan.

40. artikulua.

Ibilgailua geldirik egon eta zirkulazioari traba egin nahiz galarazten badu, trafikozainek kendu ahal izango dute bide publikotik.

41. artikulua.

Organo eskudunak hartutako erabaki nahiz ebazpen baten bitartez, bidaiarien hiri barruko garraio publikorako eta taxi zerbitzurako geralekuak egokitu eta berariaz seinaleztatuko dira.

Egokitutako geraleku horiek ezin izango dituzte garraio publikoko zerbitzukoak ez diren ibilgailuek erabili.

Taxi zerbitzuko geralekuetan gelditutako ibilgailuak ezin izango dira inoiz geralekuan onartzen den kopurua baino gehiago izango. Seinalean aditzera emango da kopuru hori.

2. ATALA. Aparkatzea

42. artikulua.

Ibilgailuek Donostiako udalerrian aparkatzeko bete beharreko araubidea lege eta arauetan ezarritakoa izango da. Hala ere, beste murrizpen nahiz debeku batzuk ere ezarri ahal izango dira, berariaz seinaleztatuko direnak.

43. artikulua.

Ibilgailuak aparkatzeko, honako arauak bete beharko dira:

1. Ibilgailuak ilaran nahiz baterian aparkatu ahal izango dira.

2. Oro har, ilaran aparkatu beharko da beti. Hala ez denean, berariaz adieraziko da seinaleen bitartez.

3.Zoladuran markak dituzten aparkalekuetan, ibilgailuak markatutako inguruaren barruan jarriko dira.

4.Gidariak ibilgailua ibilgetu egingo du, berez ezin ibili nahiz inork ezin mugiarazteko moduan. Gaizki ibilgetu izanaren ondorioz ibilgailua mugitu eta arau-hausteren bat egiten badu, gidariak erantzun beharko du, mugimendua ibilgailuaren jabearen nahiz gidariaren borondatearen kontra egiten denean izan ezik.

5.Karabanak, atoiak, erdi-atoiak eta antzekoak, ibilgailu traktorearekin bat eginda nahiz harengandik bereizita, horretarako egokituta eta behar bezala seinaleztatuta dauden tokietan baino ezin izango dira aparkatu.

6.Motorrak eta motor-bizikletak horretarako propio seinaleztaturiko tokietan aparkatuko dira. Ibilgailu horiek aparkatzeko toki berezirik ez badago, aparkatzeko seinaleztaturiko zerrendetan aparkatuko dira, espaloia ertzarekiko perpendikular jarrita, zirkulazio erreian sartu gabe eta ahalik eta aparkatzeko tokirik txikiena hartzen dutela. Ezin izango dira bizikletak aparkatzeko barretan aparkatu.

7.Bizikletak horretarako propio ezarritako aldeetan aparkatuko dira, horretarako propio jarriko diren parrilletan ondo bermatuta. Halakorik ez badago edo toki guztiak hartuta badaude, beste toki batzuetan aparkatu ahal izango dira, beti ere oinezkoen nahiz ibilgailuen zirkulazioa oztopatzen ez badute. Ezin izango dira, inola ere, zuhaitzen enborrei lotu, ez eta hiri altzariei ere, baldin eta altzari horiek honda badezakete edo normaltasunez erabiltzea oztopa badezakete. Guztira 3 m baino gutxiagoko zabalera duten espaloietan ere ezin izango dira aparkatu.

8.Ibilgailu motordunak ezin dira espaloia ertzean aparkatu, ez eta bizikleta-bideetan, oinezkoen nahiz bizikleten pasaguneetan eta garraio publikorako geralekuetan ere.

9. Ibilgailu motordunek libre izango dute Urbieta, San Martin eta Zubieta kaleetan garraio publikoaren joan-etorrientzako gordetako erreietan (autobus erreian) aparkatzea ostiraletik larunbatera bitarteko gauetan, larunbatetik igandera bitartekoetan eta jai bezperan, 23:00etatik 06:00etara, salbu eta ohiz kanpoko eta behar bezala justifikatutako arrazoiak direla eta besterik adierazten ez badu Udaleko Mugikortasun Atalak.

10. Ibilgailu motordunek estazionatzea izango dute Urbieta, San Martin eta Zubieta kaleetan garraio publikoa ibiltzeko erreserbatutako erreietan (bus erreian) hartarako mugaturiko aldeetan. Aipatu espazioak mugatuta egongo dira seinale bidez, eta haietan berariaz aipatuko dute zein ordu tartetan izango den zilegi aipatu erreietan estazionatzea.

11. Ibilgailu motordunek estazionatzea izango dute Urbieta, San Martin eta Zubieta kaleetan garraio publikoa ibiltzeko erreserbatutako erreietan (bus erreian), garraio publikorako geralekuetan izan ezik, espazio horiek dagozkien seinaleekin berezitatea egongo direla.

12. Ibilgailu motordunek estazionatzea izango dute Urbieta, San Martin eta Zubieta kaleetan garraio publikoa ibiltzeko erreserbatutako erreietan (bus erreian), hondakin solidoak jasotzeko edukiontzien aurreko aldeetan izan ezik, espazio horiek dagozkien seinaleekin berezitatea egongo direla

* 2013ko martxoaren 26ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 43. artikuluari 9tik 12ra bitarteko puntuak gehitu zaizkio.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2013/06/05/e1305568.htm>

44. artikulua.

Bidaiariak nahiz salgaiak garraiatzen dituzten ibilgailuak horretarako propio seinaleztaturiko aldeetan baino ezin izango dira aparkatu, beti ere seinaleetan adierazitako baldintzak beteta.

45. artikulua.

Donostiako Udalak ahalmena du hiri barruko aparkatzearen iraupena mugatzeko, ordenantza egokiaren bitartez. Hiriko alde batzuetan seinale bertikal eta horizontalak jarriko dira aparkaldia mugatua dela adierazteko eta zer araubide bete behar den jakinarazteko. Alde horietan, ezarritako denboran baino ezin izango da aparkatu, eta ezarritako baldintzak beteta.

IV. TITULUA

BIZIKLETAK

46. artikulua.

Bizikletek ere indarrean dauden trafiko eta zirkulazio arauak bete behar dituzte. Bizikleta-bideetan nahiz oinezkoek lehentasuna duten aldeetan haietarako seinaleztaturiko ibilbideetan ibiliko dira. Halakorik ez dagoen tokian, galtzadan ibiliko dira.

Txirrina eta indarrean dauden legeek agindutako distiragailu eta argiak edukiko dituzte.

47. artikulua.

Bizikleta-bideak gainontzeko trafikotik eta oinezkoen aldeetatik fisikoki bereizita egongo dira. Bizikletari eta patinatzaileek baizik ezin izango dituzte erabili. Lastertasun gomendatua hamabost (15) km/h da, gehienez. Ezin da, inola ere, hogeitabi (20) km/h baino azkarrago ibili.

48. artikulua.

Bizikletak oinezkoek lehentasuna duten aldeetan seinaleztaturiko bizikleta-ibilbideetan ibili ahal izango dira, baldin eta:

—Dauden seinaleei kasu egiten badiete.

—Oinezkoek duten lehentasuna errespetatzen badute.

—10 km/h-ko lastertasuna gainditzen ez badute eta oinezko kopuruaren arabera egokitzen badute.

—Metro bateko segurtasun distantzia uzten badute oinezko bat aurreratzean edo harekin gurutzatzean.

—Axolagabe nahiz beldurgarri den eta oinezkoen segurtasuna arriskuan jar dezakeen maniobrarik egiten ez badute.

Zazpi urte arteko umeak espaloietan ibili ahal izango dira bizikletaz, beti ere adinez nagusi den baten ardurapean, oinezkoak baino azkarrago ibili gabe eta haiei enbarazu egin gabe.

49. artikulua.

Galtzadatik doazenean, bizikletak eskuineko erreitik joango dira; errei horren erdiko aldea ere har dezakete. Bestalde, ezkerreko erreitik ere joan ahal izango dira, bidearen

ezaugarriak direla-eta eskuineko erreitik ezin direnean ibili edo ezkerretara jo behar dutenean.

50. artikulua.

Bizikleta-bideetan, oinezkoek lehentasuna duten aldeetan seinalezaturiko ibilbideetan nahiz 30 km/h lastertasuna gainditu ezin den aldeetan dabiltzan bizikletek atoi nahiz erdi-atoi bat eraman ahal izango dute, bai egunez bai gauez, edozein fardel mota nahiz umeak garraiatzeko. Atoiak edo erdi-atoiak behar bezala egiaztatu edo homologatua egon beharko du, eta haietako bakoitzerako onartzen den pisua ezin izango da inola ere gainditu.

Halaber, gidaria adinez nagusia bada, zazpi urte arteko haur bat eraman ahal izango du bizikletari lotutako aulki batean. Aulkiak behar bezala egiaztatu edo homologatua egon beharko du, eta haietako bakoitzerako onartzen den pisua ezin izango da inola ere gainditu.

51. artikulua.

Udalak bizikleten erregistroa sortuko du, lapurretak eta galerak prebenitu eta bizikletak erraz topatu ahal izateko. Nahi duenak emango du izena Mugikortasuneko Administrazio Atalak kudeatuko duen erregistro horretan.

Serie-zenbakia duten bizikletak erregistratu ahal izango dira.

Hamalau urtetik gorakoek erregistratu ahal izango dituzte bizikletak. Horretarako, honako datu hauek eman beharko dituzte:

- Jabearen izena eta abizenak.
- Helbide eta telefonoa.
- Nortasun agiriaren zenbakia.
- Bizikletaren serie-zenbakia.
- Bizikletaren marka, modelo eta kolorea.

Hamalau urtetik beherakoen bizikletak gurasoen nahiz legezko tutoreen izenean erregistratuko dira.

Bizikleta erregistroan jasotzean, jabeak jasoarazi ahal izango du borondatezko aseguruua duen.

Organo eskudunak hartutako erabaki nahiz ebazpen baten bitartez ezarriko dira erregistroaren funtzionamendu arauak.

V. TITULUA

BIDE PUBLIKOAREN ERABILERA KOMUN OROKORRA MURRIZTEA

I. KAPITULUA. ZAMALANAK

52. artikulua.

1. Bide publikoan zamalanak egitea honakoa da: Salgai bat finka batetik aparkatuta dagoen ibilgailu batera eramatea, edo alderantziz, bai eta ibilgailu batetik bestera eramatea ere, beti ere ibilgailuak edo ibilgailuek horretarako baimena dutela jotzen bada.

Ibilgailu hauek zamalanak egiteko baimena dutela jotzen da: Turismoak ez diren eta salgaiak garraiatzeko baimena duten ibilgailuek, definizio horren arabera sailkatuta badaude Zirkulazio Baimenean edo Garraio Txartela badute.

2.Hona hemen salgaiak kargatu eta deskargatzeko tokiak eta denborak:

a)Ahal dela, merkataritzako nahiz industriako lokaletan, beti ere horretarako behar diren baldintzak betetzen badira eta sarbideek horretarako bidea ematen badute.

b)Helburu horretarako erreserbatutako aldeetan, seinaleetan adierazitako ordutegia errespetatuz. Aparkaldia, gehienez ere, 20 minutukoa izango da 3.500 kilogramo arteko gehieneko karga duten ibilgailuetarako, eta 40 minutukoa 3.500 kilogramotik 12.000ra bitarteko gehieneko karga dutenentarako, Ekialdeko Zabalguneari nahiz Parte Zaharrari zerbitzu emateko Zabalgunean erreserbatutako aldeetan izan ezik. Izan ere, alde horietan, gehieneko aparkaldia 40 minutukoa izango da ibilgailu guztietarako.

3.Salgaiak garraiatzen dituzten ibilgailuek zamalanak egiteko alde batzuk erreserbatuko dira. Txosten teknikoetan oinarrituta erabakiko da zenbat, beti ere kontuan izanda kokatuta dauden eremuko ekonomi jarduerarako nahikoak direla eta jarduera horren ezaugarriekin bat datozela. Zamalanak egiteko ordutegitik kanpo, erreserbatutako aldeak kokatuta dauden eremuko aparkatze araubidea bete beharko da.

4.Zamalanak egiten ari diren ibilgailuek ezin izango dituzte ez espaloiak ez ibiltokiak okupatu, ez eta gelditzea oro har nahiz berariaz galarazita dagoen aldeak ere.

5.Kargatu eta deskargatu beharreko salgaiak eta bestelako gauzak zuzenean eramango dira finka nahiz lokaletik ibilgailura, bai eta ibilgailutik finka nahiz lokalera ere. Ez dira inoiz utziko bide publikoan, ezta behin-behingoza bada ere.

6.Zamalanak kontuz egin beharko dira, beharrik gabe zaratarik egin gabe, eta erabilitako tokia garbi utzi beharko da.

7.Zama-lanak ibilgailuak espaloitik hurbilen duen aldetik egingo dira, beharrezko bitarteko guztiak baliatuta ahalik eta azkarren bukatzeko, eta beste ibilgailu nahiz oinezkoei traba egin gabe.

II. KAPITULUA.IBILGAILUAK SARTZEKO BIDE PUBLIKOAN ERRESERBATUTAKO PASABIDEAK

53. artikulua.

Espedientea bideratu eta gero, aparkatzea galarazita dagoen guneak seinalezatzeko lizentzia emango da, ibilgailuak lokal nahiz lur pribatuetara sartu ahal izan daitezen. Pasabide lizentzia deitzen da.

54. artikulua.

1.Honakoek eskatu ahal izango dute pasabide lizentzia, baldin eta sailkatutako jarduera baten lizentzia badute:

—Garaje gisa erabilitako lokalen titularrek, baldin eta ibilgailuak gordetzeko eta maniobrak egiteko moduan antolatuta badaude barrutik.

—Ibilgailuen sektoreko jardueren titularrek (kontzesionarioak, lantegiak, ibilgailuak alokatu eta saltzeko enpresak).

—Lokalaren barruan zamalanak egiteko adina leku duten jardueren titularrek.

—Osasun nahiz laguntza zentroen titularrek, larrialdiko ibilgailuek sartu eta ateratzeko modua izan dezaten.

2.Honakoek ere eskatu ahal izango dute pasabide lizentzia:

—Garaje gisa erabilitako lurren titularrek, baldin eta ibilgailuak gordetzeko eta maniobrak egiteko moduan antolatuta badaude barrutik.

—Bizitza bakarreko etheen titularrek, bakartuta badaude eta garaje moduan erabiltzen den alde eraiki eta estali bat badute lursailaren barruan.

—Bizitza bakarreko etxe elkarri atxikien titularrek, baldin eta garaje moduan erabiltzen den toki bat badute erakinean.

—Garaje moduan erabiltzeko baimena duten lokalen titularrek, sailkatutako jarduera lizentziarik behar ez badute.

55. artikulua.

Lizentzia eskaera eskabide normalizatuan egin beharko da eta bertan eskatzen diren agiriak ere aurkeztu beharko dira harekin batera, lizentzia eskuratzeko bete beharreko baldintzak betetzen direla egiaztatzearen.

Lizentzia eskatu eta hiru hilabete iraganda, aldeko zein kontrako erabakirik jakinarazi ez bazaio, eskatzaileak lizentzia ukatu egin zaiola jo beharko du.

56. artikulua.

Erreserbatutako aldeak bost metro lineal izango ditu, gehienez, bi kasu hauetan izan ezik: Lokala arrapala bat baino gehiago dituen garaje pribatua denean eta ibilgailuak konpontzeko lantegia denean, baldin eta bi sarrera baditu, bezeroari kasu egiteko nahiz konponketa motak bereizteko esparru banari dagozkionak.

Erreserbatutako aldean ez lizentziaren titularrek ez beste inork ezin izango dute aparkatu, erreserbatutako denboran sarbideak libre egon behar du eta.

57. artikulua.

Pasabide lizentzia egunean hogeita lau orduz egongo da indarrean ibilgailu gordetegien kasuan, eta lan ordutegian gainontzeko jardueren kasuan, hau da, 08:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 20:00etara, igande eta jaiegunetan izan ezik. Pasabidearen ordutegia plaketan erakutsi beharko da. Plaka eredu Udalak normalizatua izango da.

58. artikulua.

Erreserba dagoela adierazteko seinaleak Udalak emango dizkio lizentziaren titularrari, ordaindu eta gero.

Erreserbatutako aldea titularrak seinaleztatuko du, Udalak emandako seinale bertikalen bitartez, bakoitza erreserbatutako aldearen mutur batean jarrita.

Seinaleak fatxadari atxikiak jarriko ditu, lizentzian beste nonbait kokatzeko agintzen zaionean izan ezik.

Aparkatzeko zerrendarik egonez gero, errektangelu bat eta bi diagonal marraztu beharko ditu, hori kolorekoak eta 0,15 metro zabal.

Lizentziaren jabeak behar bezala seinaleztatuta eduki beharko du beti sarbidea, eta seinaleak behar bezala zainduta. Behar izanez gero, seinale berriak emateko eskatuko dio Udalari.

Seinaleak lapurtzen badizkiote, kopia bat eskatu beharko dio Udalari, salaketa egin eta gero.

Erreserba seinaleztatzeko hiri altzariren bat tokiz aldatu behar izanez gero, lizentziaren titularrak lizentzian jasotako jarraibideak aintzakotzat hartu beharko ditu.

Ibilgailuak sartzeko espaloiak egin, konpondu, aldatu nahiz kendu behar izanez gero, lizentziaren jabeak ordainduko ditu gastuak.

Sarbidea errazteko behin-behineko instalazio nahiz osagai mugikorrik ezin izango da jarri, horretarako arrazoi sendoak daudenean izan ezik. Halakoetan ere, baimena lortu beharko da.

59. artikulua.

Lizentziaren titularrek erantzun beharko dute ibilgailuek sartu nahiz ateratzean udal jabetza publikoari egindako kalteengatik. Udal organo eskudunak hala eskatuta, konpondu beharko dituzte, ematen zaien epearen barruan. Beharra duenak agindutakoa bete ezean, Udalak egingo ditu konponketak edo jarriko du beharrezko material berria, ordezeko betearazpenez eta beharra duenaren kontura.

60. artikulua.

Organo eskudunaren erabaki nahiz ebazpen baten bidez, pasabide lizentziaren ondorioak bertan behera utzi ahal izango dira behin-behingo, trafikoa antolatu edo hobeto garatzeko, bide publikoan obrak egiteko edo ohiz kanpoko beste gertaera batzuk direla-eta.

61. artikulua.

Ibilgailuak lokal batera sartzeko bide publikoan toki bat erreserbatzeko lizentzia honako kasu hauetan iraungiko da: Lokalaren jarduera nahiz helburua aldatzean eta tasak ordaindu ezean. Halaber, lizentziaren titularrak bere beharrak betetzen ez baditu, lizentzia kentzeko espedienteari ekingo zaio.

Jardueraren nahiz instalazioaren titularra aldatuz gero, Udala jakinaren gainean jarri beharko da. Halakoetan, pasabide lizentziaren titulartasuna ere aldatuko da, berez eta besterik gabe.

Donostiako Udalak eskubidea du ordenantza honetan aipatutako baimenak bertan behera uzteko edonoiz, beti ere interes orokorreko irizpide edo gorabeherengatik. Baimen horiek gozaten dituztenek ez dute eskubiderik izango inolako kalte-ordainik jasotzeko.

Lizentzia iraungitakoan, titularrak erreserba seinaleak itzuli behar dizkio Udalari eta udal jabetza publikoa lehen zegoen bezala utzi.

III. KAPITULUA.APARKATZEKO DEBEKUA DUTEN GUNE ERRESERBATUAK

62. artikulua.

Espedientea bideratu eta gero, aparkatzeko debekua duten guneak erreserbatzeko lizentziak eman ahal izango dira. Erreserbatutako gune horietan aparkatzeko debeku orokorra egongo da, lizentziaren titularraren mesedetan.

Erreserbak bost urterako emango dira. Epea iraganda, interesatuek lizentzia berritzeko eskatu ahal izango dute, baldin eta emateko kontuan izandako arrazoiek bere horretan badiraute.

Erreserba edukiontziak jartzeko nahiz obrak egiteko bada, lizentzia eskatzen den eperako emango da; nolana ere, ezin izango du inoiz gainditu obra-lizentzian aurreikusitako epea. Baldintza guztiak betez gero, iraupen bereko beste aldi batzuetarako luzatu ahal izango da lizentzia, baldin eta aurrekoa amaitu baino hamabost egun lehenago eskatzen bada eta hura emateko kontuan izandako arrazoiek bere horretan badiraute.

63. artikulua.

Honakoei emango zaie erreserba, tasa ordaindu eta gero:

a)Sarbidea edo harrera-lekua merkataritza behealde batean duten hotelei, baldin eta 24 orduetan badaude irekita, ibilgailuak sartu eta atera ahal izan daitezzen; gehienez hiru plaza erreserbatuko dira.

- b)Jendearentzat irekitako lokalei, larrialdiko sarrera eta irteera libre uztearren.
- c)Segurtasun kolektiboa bermatzeko komenigarria duten eraikinei.
- d)Osasun etxeei, larrialdiko ibilgailuak eta gaixoak sartu ahal izateko.
- e)Gasolio deskargatzeko.
- f)Obra-educiontzia jartzeko.
- g)Obrak egiteko.
- h)Mugitzeko zailtasunak dituztenen ibilgailuei.
- i)Zerrenda honetako en antzeko beste edozein jardueratarako, baldin eta beharrezko udal lizentzia badu.

Larrialdiko sarrera nahiz irteerak bermatzeko lizentzien kasuan, erreserbatutako aldea aparkatzeko erabiliz gero, erreserba kentzeko espedienteari ekingo zaio.

Mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonen ibilgailuetarako erreserben kasuan, diru baliabide gutxi dituzten pertsona nahiz famili unitateei tasa ez ordaintzeko eskubidea aitortu ahal izango zaie, dagokion zerga ordenantzan ezarritakoarekin bat etorritik, eskaera egin eta Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak aldeko txostena eman eta gero.

64. artikulua.

Kapitulu honetan araututako lizentziak interesatuak eskatu beharko ditu, eskabide normalizatuan, eta, harekin batera, kasu bakoitzean eskatzen diren agiriak aurkeztu.

Mugitzeko zailtasunak dituztenen ibilgailuetarako erreserbak, ibilgailu jakin batek erabiltzekoak direnak, izendun edo espezifikoko deituak, ibiltzeko gurgil-aulkia nahiz makilak behar dituzten pertsonen emango zaizkie, bai eta mugikortasun baremoan 10 puntu dituztenei ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Departamentuaren arabera. Eskatzailea ez bada ibilgailuaren ohiko gidaria, biek etxe berean bizi behar dute. Erreserba horiek ez dira emango famili unitateko norbaitek garaje plaza bat badu etxetik hurbil, beti ere plaza horrek irisgarritasun baldintzak betetzen baditu.

65. artikulua.

Titularra aldatzen bada edo erreserba handitu, murriztu nahiz tokiz aldatu nahi bada, lizentzia berrikusi egingo da.

66. artikulua.

Erreserba lizentzia kendu ahal izango zaio titularrari, espedientea bideratu eta gero, baldin eta trafikoaren eta aparkamenduaren antolamendua aldatzen bada nahiz interes orokorreko arrazoirik badago. Lizentziaren titularrak ez du eskubiderik izango inolako kalte-ordainik jasotzeko.

67. artikulua.

Lizentziaren titularrak seinalezatu beharko du erreserbatutako aldea, lizentzian bertan agindutako moduan. Horrezaz gain, seinaleak ordaindu, mantendu eta zainduko ditu.

Lizentziaren iraupena amaituta, titularrak seinaleak kendu beharko ditu, hamabost egun iragan baino lehen. Epe barruan kentzen ez baditu, ordezkot betearazpen espedienteari ekingo zaio.

68. artikulua.

Erreserbatutako aldean seinale horizontal eta bertikalak jarriko dira. Behar bezala seinaleztatuta badago, gainontzeko ibilgailuek ezin dute han aparkatu, horrek dakartzan ondorioekin.

IV. KAPITULUA. BIDE PUBLIKOAN JARDUTEKO UNEAN-UNEKO BAIMENAK

69. artikulua.

Ordenantza honek barnean hartzen dituen bideetan, obrak egiteko nahiz instalazioak, edukiontziak, hiri altzariak edo beste edozein osagai behin-behingo zein betiko jartzeko espaloirik, oinezkoen alderik, bizikleta-biderik, zirkulazio erreirik nahiz aparkamendu zerrendarik okupatu behar izanez gero, Udalaren baimena lortu beharko da aurretik eta udal arauetan eta baimenean bertan ezarritakoa bete beharko da. Baimenak okupazio bakoitzean bete behar diren baldintza bereziak zehaztuko ditu, baimenaren titularrak nahitaez bete beharrekoak.

Kirol saioak egiteko, estatuan indarrean dauden arauak aintzakotzat hartu beharko dira.

70. artikulua.

Jarduera hasi baino bost lanegun lehenago gutxienez eskatu beharko du baimena interesatuak. Horretarako, eskabide normalizatua aurkeztu beharko du eta, bertan, bide publikoa okupatzeko arrazoia eta okupazioaren iraupena azaldu. Hartu nahi duen eremua ere adierazi beharko du, plano batean.

71. artikulua.

Administrazio espedientea bideratu eta gero emango da eskatutako baimena. Baimenean, eskatzaileak hartu beharreko segurtasun neurriak, baimenaren iraupena eta eskatzaileak bete beharreko baldintzak azalduko dira. Tasa edo prezio publikorik ordaindu behar izanez gero, alde aurretik ordaindu beharko du eskatzaileak.

Udalak, baimena emateko, fidantza jartzeko eskatu ahal izango dio eskatzaileari, bide publikoa zegoen-zegoenean utziko duela bermatzeko.

Jarduerak hasi beharreko eguna iritsi eta baimena eman edo ukatzeko ebazpenik jakinarazi ez bazaio, eskatzaileak baztertutakotzat jo beharko du eskaera, gerora berariazko ebazpena eman beharko bada ere.

72. artikulua.

Baimendutako eremua hogeita lau (24) ordu lehenago seinaleztatatu beharko da. Seinaleetan, honakoak azalduko dira: Okupazio-epea eta baimena emateko ebazpena. Baimenaren arabera aparkamendu alderik okupatu behar izanez gero, aparkatzeko debekua adierazten duen seinalea jarri beharko da.

Seinaleak jartzen direnean ibilgailurik badago erreserbatutako aldean eta 24 ordu iragan ondoren bertan jarraitzen badute, garabi zerbitzuak tokiz aldatu edo Ibilgailuen Udal Biltegira eramango ditu. Baimenaren titularrak ordaindu beharko ditu garabi zerbitzuek ekarritako gastuak. Horretarako, baimena eskuratu aurretik, fidantza bat jarri beharko du (20 euro okupatu beharreko metro lineal bakoitzeko, aparkalekua ilarakoa bada, eta 50 euro metro lineal bakoitzeko, aparkalekua bateriakoa izanez gero). Baimenean azalduko da zenbateko zehatza. Beharrezkoak diren garabi zerbitzuengatikoko gastuak fidantza horretatik ordainduko dira.

Aldea seinaleztatatu eta gero, bertan aparkatzen duten ibilgailuei bidegabeko aparkatzeagatikoko salaketa jarriko zaie eta garabi zerbitzuak eramango ditu. Haien jabeek ordaindu beharko dituzte garabi zerbitzuak ekarritako gastuak.

73. artikulua.

Baimenean ezarritako baldintzak bete ezean, baimena kendu eta zehapen espedientea irekiko zaio eskatzaileari.

VI. TITULUA

ZEHAPEN ARAUBIDEA

I. KAPITULUA. ZEHAPEN JARDUNBIDEA

74. artikulua.

Alkateari dagokio ordenantza honetan nahiz, oro har, indarrean dauden trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko lege-arauetan trafikoaz, ibilgailuen zirkulazioaz eta bide segurtasunaz ezarritako arauen urraketak zehatzea. Hala ere, beste norbaiten esku utzi ahal izango du eskumen hori, egoki irizten badio.

75. artikulua.

Ordenantza honetan eta, oro har, zirkulazio, trafiko eta bide segurtasunari buruzko lege-arauetan xedatutakoa urratzeagatik zehapenak ezartzeko jardunbidea otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuak, arlo horretako Zehapen Jardunbidearen Araudia onartzekoak, edo hura ordezkatzeko duen arauak ezarritakoa izango da.

Ordenantza honetan ezarritakoa urratuz gero, huts egite edo urraketatzat jotzen den ekintza egiten duena izango da erantzulea.

Hamazortzi urte baino gutxiago dituen bat erantzuletzat joz gero, haren gurasoek nahiz legezko edo izatezko tutore, hartzaile edo zaintzaileek erantzungo dute solidarioki harekin, hurrenkera horretan. Izan ere, ezarri zaien betebeharra bete behar dute, besteak beste, adin txikikoei egotz dakiekeen arau-hauste edo urraketa administratiboa prebenitzea.

Erantzukizun solidarioa, ezarritako isuna dela-eta ordaindu beharreko diruari baino ez dagokio. Zehapen ahalmena duen agintaririk neurtu ahal izango du diruzko zehapenaren zenbatekoa. Arau-haustea arina bada, eta aurreko paragrafoan aipatutako pertsonen onarpena emanaz gero, diruzko zehapena ezarri ordezkari batzuk hartu ahal izango dira, hauek ere hezitzaileak.

76. artikulua.

Zehapen jardunbidea eta errealitate fisiko aldatua lehengoratzeko nahiz egin beharreko lanak ordezkari betearazpenez egiteko irekitzen diren gainontzeko jardunbideak, zein bere aldetik bideratuko dira.

77. artikulua.

Ordenantza honetan bildutako arau-hausteei hiru hilabete iragan eta gero preskribituko dute arinak badira, sei hilabete iragan eta gero larriak badira, eta urtebete iragan eta gero oso larriak badira.

II. KAPITULUA. ARAU-HAUSTEAK

78. artikulua.

Ordenantza honetako aginduak ez betetzeagatik arau-hausteak, arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

Ordenantza honetako artikuluetan ezarritakoari egindako urraketak ez badaude berariaz tipifikatuta hurrengo artikuluetan, trafiko, ibilgailu motordunen zirkulazio eta bide

segurtasunari buruzko legeetan xedatutakoaren arabera zehatuko dira, lege horiei jarraiki dagokien sailkapenaren arabera.

79. artikulua.

Hauek dira arau-hauste arinak:

- Parte Zaharrean gelditzea etxeetako sarbidea oztopatuz edo bira egiteko guneetatik hiru metro baino gutxiagora.
- Parte Zaharrean ibiltzea, astegunetan, 07:00etatik 11:30etara, ez bada pertsona batek ezin eraman ditzakeen salgaiak kargatu eta deskargatzeko.
- Taxiek Parte Zaharrera sartzeko duten ordutegia ez betetzea.
- Kargatzen nahiz deskargatzen ari diren materialak bide publikoan uztea.
- Zamalanak egitean zarata edo zikinkeria gehiegi ateratzea.
- Pasabide lizentzia duen aldea gaizki seinaleztatzea.
- Pasabide lizentzia duten aldeetara sartu ahal izateko osagai behin-behineko nahiz mugikorrak jartzea, horretarako behar den baimena izan gabe.
- Patin nahiz antzeko gailuez ibiltzea lastertasuna oinezkoarenari egokitu gabe edo kirola eginez, horretarako seinaleztaturiko aldeetatik kanpo.
- Bizikletak 48. artikuluan ezarritako baldintzak bete gabe zirkulatzea.
- Motor-bizikletek nahiz motorrek bizikletetarako aparkalekuak okupatzea.

80. artikulua.

Hauek dira arau-hauste larriak:

- Ezarritako ordutegitik kanpo ibiltzea Parte Zaharrean, lanegun nahiz jaiegunetan.
- Lastertasun muga edota oinezkoen lehentasuna errespetatu gabe ibiltzea Parte Zaharrean.
- Hiru mila bostehun (3.500) kilogramo baino gehiagoko BGP duten ibilgailuak edota bi metro zabal eta bost metro luze baino handiagoak direnak Parte Zaharrera sartzea, baimenik gabe.
- Parte Zaharrera sartzeko baimenean ezarritako baldintzak ez betetzea.
- Berariaz seinaleztaturiko aldeetatik kanpo nahiz seinaleztaturikoen sarreran aparkatzea Parte Zaharrean.
- Agintari eskudunak hartutako zirkulazio neurri bereziak direla-eta ezarritako murrizpenak ez errespetatzea.
- Garraio berezia Donostiako udalerrian zirkulatzea, horretarako behar den baimena izan gabe.
- Garraio berezia baimentzeko ezarritako baldintzak ez betetzea.
- Ezarritako aldeetatik eta ordutegitik kanpo egitea zamalanak, baimenik gabe.
- Gelditzea debekatuta dagoen aldeetan zamalanak egitea.
- Ibilgailu eta oinezkoen zirkulazioa oztopatuz egitea zamalanak.
- Bide publikoan, obrak egiteko edo edukiontzia, hiri altzariak nahiz beste edozein osagai betiko nahiz behin-behingo jartzeko zirkulazio erreia edo aparkatze zerrenda okupatzea, horretarako beharrezkoa den udal baimena izan gabe.

- Erreia edo aparkatze zerrenda okupatzeko baimenean ezarritako baldintzak ez betetzea.
- Pasabide lizentziaren titularrak edo haren baimena duen edonork erreserbatutako aldean aparkatzea ibilgailua.
- Aparkatzeko debekua duten guneak erreserbatzeko lizentzian ezarritako baldintzak ez betetzea.
- Aparkatzeko debekua duten gune erreserbatuak gaizki seinaleztatu, mantendu nahiz zaintzea.
- Ibilgailu motordunak garraio publikoko geralekuetan aparkatzea.
- Ibilgailu motordunak espaloietan, oinezkoen aldeetan eta bizikleta-bideetan axolagabe ibiltzea.
- Ibilgailu motordunak erreserbatutako erreietan ibiltzea edo 2 minutu baino gutxiago gelditzea bertan.
- Oinezkoen eta bizikleten pasabideetan lehentasuna ez errespetatzea.
- Ibilgailu motordunek eta bizikletek oinezkoen lehentasuna ez errespetatzea hala seinaleztatutako aldeetan.
- Ibilgailu motordunak espaloien gainean, bizikleta-bideetan eta oinezkoen nahiz bizikleten pasabideetan aparkatzea.
- Bizikletaz ibiltzea onartutako lastertasuna gaindituz eta oinezkoei arrisku larria sortuz.
- Gauetz bizikletaz ibiltzea argirik eta distiragailurik gabe.
- Informazio seinaleak jartzea udal baimenik gabe.
- Informazio seinaleak jartzea baimenean ezarritako baldintzak bete gabe.
- Seinaleen edukia aldatzea edo haien gainean ezer jartzea, baldin eta zer horrek nahasketa eragin badezake, seinaleak ondo ikustea oztopa badezake, haien eraginkortasuna murriz badezake, bidearen erabiltzaileak itsutu badezake edo haien arreta desbideratu badezake.
- Garraio publikorako erreiak okupatu edo ixtea nahiz bertan aparkatzea.

81. artikulua.

Honakoa da oso arau-hauste larria:

- Ibilgailu motordunak espaloietan, oinezkoen aldeetan eta bizikleta-bideetan beldurgarri ibiltzea.

III. KAPITULUA. ZEHAPENAK

82. artikulua.

Arau-hauste arinengatik berrogeita hamar (50) eurotik laurogeita hamar (90) euro bitarteko isuna jarriko da edo, bestela, aplikatu beharreko lege-arau orokorretan xedatutakoa.

83. artikulua.

Arau-hauste larriengatik laurogeita hamaika (91) eurotik hirurehun (300) euro bitarteko isuna jarriko da edo, bestela, aplikatu beharreko lege-arau orokorretan xedatutakoa.

84. artikulua.

Arau-hauste oso larriengatik hirurehun eta bat (301) eurotik sei ehun (600) euro bitarteko isuna jarriko da edo, bestela, aplikatu beharreko lege-arau orokorretan xedatutakoa.

IV. KAPITULUA. ZUHURTASUNEZKO NEURRIAK

85. artikulua.

Trafikoa zaintzen duten agintaritzaren agenteek ibilgailua ibilgetu ahal izango dute, lege-arauetan ezarritako kasuetan.

Ibilgailua ibilgetzeak dakartzan gastuak titularrak ordainduko ditu. Zuhurtasunezko neurria kendu aurretik ordaindu beharko ditu, edo ordainduko dituela bermatu. Horrek ez du galaraziko ez bere burua defendatzeko duen eskubidea ez Administrazioak neurri hori hartzea eragin duen pertsonari jasanaraztea ondorioak.

86. artikulua.

Agintaritzaren agenteek, lege-arauetan ezarritako kasuetan, ibilgailua bidetik kendu eta agintari eskudunak esandako tokian utzi ahal izango dute.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA

Aparkatzeko debekua duten gune erreserbatuek, ordenantza honetan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, urtebeteko epea izango dute betekizun berrietara egokitzeko. Epe hori iraganda egokitzeko eskaera egin ez bada edo, eskaera eginda, ukatu egin bada, erreserbatutako guneak iraungi egingo dira, espedientea bideratu eta gero. Mugitzeko zailtasunak dituen norbaitek ibilgailu jakin bat aparkatzeko erreserbatutako plaza izanez gero, erabilera orokorreko plaza bihurtuko da, baina mugitzeko zailtasunak dituztenek gidatutako ibilgailuak nahiz haiek garraiatzen dituztenak aparkatzeko erreserbatua.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza hau indarrean sartzen denean, Araututako Aparkatzeari buruzko Udal Ordenantzak eta haren aldaketek indarrean jarraituko dute.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Zirkulatzen hasten diren ibilgailu mota berriek Donostiako udalerrian zirkulatu eta aparkatzeko bete beharreko baldintzak Gobernu Batzarraren ebazpenez ezarriko dira. Ibilgailu berri horien ezarpena errealitatea denean eta hiriko trafikoan iraunkortasunez parte hartzen dutela egiaztatu eta gero, Oinezko eta Ibilgailuen Zirkulazioa Arautzeko Ordenantza aldatzea sutatuko da.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honetan jasotako lizentzia eta baimenak emateko jardunbideetan, gehieneko epea igarotzen bada berariazko ebazpenik jakinarazi gabe, eskatzaileak ulertu ahal izango du eskaera ukatu egin zaiola, administrazioaren isiltasunez, Udalak gerora berariazko ebazpena eman beharko badu ere.

LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Udalak katalogo orokor bat egingo du, ordenantza honekin bat, bizikleta-bide eta ibilbideak eranskinen ageri diren kategorien arabera sailkatzeko, herritarrek horren berri jakin dezaten. Bizikleta-bide nahiz ibilbide berririk sortuz gero edo direnen trazatuak edota ezaugarriak nabarmen aldatuz gero, sailkatu egin beharko dira edo, hala dagokionean, lehendik zegoen sailkapena berrikusi, eranskinarekin bat bi kasuetan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ordenantza hau indarrean jartzen denean, honako arau hauek indarririk gabe geldituko dira:
—Alkatearen Bandoa, 1997ko abuztuaren 6koa, monopatinaren erabilerari buruzkoa.

—Alkatearen Bandoa, 1994ko otsailaren 15ekoa, Parte Zaharrean zirkulatzeko arauei buruzkoa.

—Ordenantza, 1972ko apirilaren 20koa, bide publikoaren erabilera berezia adierazteko plakak baimentzeko baldintzak eta garaje pribatuetara sartzeko aldeetan aparkatzea debekatzekoak (pasabideak) arautzekoa.

—Zamalanen gaineko Bandoa, 1991koa.

AZKEN XEDAPENA

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik hogeit egunera hartuko du indarra ordenantza honek.

ERANSKINA

Espaloia: Errepidearen luzetarako aldea, jaso ala ez, oinezkoek bertatik ibiltzeko erabiltzen dutena.

Bizikleta: Bi gurpileko ibilgailua, haren gainean doan pertsonaren giharren ahaleginagatik baino mugitzen ez dena, batez ere pedal edo biraderen bitartez.

Bizikleta-bidea: Txirrinduen zirkulaziorako bereziki egokitutako bidea. Seinale horizontal eta bertikalak ditu eta horrelako ibilgailuak seguru ibiltzeko behar besteko zabalera du. Bi motatakoa izan daiteke: Bizikleta-espaloia, espaloia gainean seinaleztaturiko bizikleta-bidea, eta bidegorria, galtzadari atxikia doan bizikleta-bidea, norabide bakarrekoa edo bikoia. Bide hauetan bizikletak izango du lehentasuna.

Bus erreia: Garraio publikoaren zirkulaziorako erreserbatutako erreia.

Aparkatzea: Ibilgailua ibilgetzea, gelditu nahiz geratua ez badago.

Motor-bizikleta: Motor-bizikletak honako hauek dira:

—Bi gurpileko ibilgailua, 50 cm³-tik gorakoa ez den zilindradako motorra duena, barnerrekuntzakoa bada, eta, eraikuntzagatik, gehieneko abiadura 45 km/h baino gehiagokoa ez duena.

—Hiru gurpileko ibilgailua, 50 cm³-tik gorakoa ez den zilindradako motorra duena, barnerrekuntzakoa bada, eta, eraikuntzagatik, gehieneko abiadura 45 km/h baino gehiagokoa ez duena.

—Lau gurpileko ibilgailua, hutsean 350 kg baino masa txikiagoa duena –baterien masa kontuan izan gabe ibilgailu elektrikoa bada–, eraikuntzagatik gehieneko abiadura 45 km/h baino gehiagokoa ez duena eta 50 cm³-tik gorakoa ez den zilindradako motorra duena, eztanda motorren kasuan, edo 4 kw baino handiagokoa ez den gehieneko potentzia garbia duena, gainerako motorren kasuan.

Erreia: Galtzada luzerako zerrendatan zatituta egon daiteke eta zerrenda horiek dira erreiak. Erreia luzerako bide markek mugatuta edo ez egon daiteke, eta motorrak ez diren automobilen ilara bat bertan ibiltzeko behar besteko zabalera izango du beti.

Erreserbatutako erreia: Ibilgailu jakin batzuek baino erabili ezin duten erreia, bertan jarritako seinaleetan adierazitako moduan.

Garraio berezia: Bere ezaugarri teknikoengatik nahiz garraiatzen duen zama banaezinarengatik, ibilgailuen gaineko lege-arauetan ezarritako masa eta dimentsioak gainditzen dituen garraioa.

Gelditzea: Ibilgailua bi minutu baino gutxiago ibilgetzea, gidaria handik atera gabe.

Motorrik gabeko patinak: Oinari egokitutako gailua, gurpilak dituena eta zoladura gogor eta uniforme baten gainean irristatzeko balio duena.

Motorra: Bi gurpileko ibilgailua, sidekarra duena edo ez. Sidekarra bidaiari-lekua da, motorrari albo batetik atxikia nahiz hiru gurpilekoa.

Pasabide lizentzia: Lokal nahiz lur pribatuetara sartu ahal izateko, aparkatzeko debekua duten gunek seinaleztatzeko ematen den lizentzia.

Monopatina: Gurpilen gaineko ohola, zoladura gogor eta uniforme baten gainean irristatzeko balio duena.

Oinezkoa: Ordenantza honek barnean hartzen dituen bide nahiz lurretan ibiltzen den pertsona, ibilgailurik gidatu gabe. Honakoak ere oinezkoak dira: Ume-kotxe bat, gurpil-aulki bat nahiz motorrik gabeko beste edozein ibilgailu txiki bultzatzen edo arrastatzen dutenak, oinez joanda bi gurpileko txirrindu nahiz motor-bizikleta bat gidatzen dutenak eta motordun nahiz motorrik gabeko gurpil-aulki batean doazenak, lastertasuna oinezkoen martxara egokitzen badute.

Ibilgailua: Ordenantza honek barruan hartutako bide nahiz lurretan ibiltzeko gai den makina zein aparatua.

Oinezkoek lehentasuna duten aldeetan seinaleztaturiko bizikleta-ibilbideak: Oinezkoek lehentasuna duten alde batean bizikletak ibiltzeko egokitutako tokia. Seinale bertikal nahiz horizontalak izan behar ditu, edo biak. Ibilbide hauetan oinezkoak du lehentasuna.

Oinezkoek lehentasuna duten aldeak: Alde hauetan muga batzuk edo erabateko debekua ezarriko zaizkie ibilgailuei zirkulatu eta aparkatzeko; horrekin batera, erasandako aldean zirkulazioak bete beharreko baldintzak zehaztuko dira.

Itxaron-alde aurreratua: Semaforodun geralekuetan, trafikoa gelditzen den lerroa baino aurreraxeago dagoen gunea, bizikletak ibilgailu motordunak baino aurreagotik hasi ahal izateko ibiltzen.

Oinezkoen aldea: Bidearen zati bat, jaso edo beste modu batean mugatua, oinezkoen zirkulaziorako erreserbatua. Definizio horren barruan, espaloia eta ibiltokia ere sartzen dira.